

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, S.A. (Surbisa)**

Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte S.A. SURBISAko Presidentearen 2026ko otsailaren 26ko Erabakiaren laburpena, 2026.urtean Uretamendi auzoan birgaitze efizientea eta irisgarriako proiektu teknikoak idazteko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena. BDNS (Identif.): 890085.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/890085>).

1. Xedea

Deialdi honen xedea itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematea da, Betolaza auzoko, Uretamendi auzoko eta Circunvalación kaleko familia anitzeko bizitegi-eraikinek proiektu tekniko bat kontrata dezaten, irisgarritasuna eta birgaitze energetikoa sustatze aldera.

Laguntza horren bidez, beraz, jabeen erkidegoei Birgaitze Energetikoa eta/edo Irisgarritasuna proiektu tekniko bat egiteko aukera eman nahi zaie. Proiektu hori profesional eskudunak egingo du, eta ez dio kosturik eragingo Erkidegoari.

2. Onuradunak

Bilboko zenbait auzotako jabego pribatuko familia askotako bizitegi-eraikinetako Jabekideen Elkarteek eskatu ahalko dituzte oinarri hauetan jasotako laguntzak, edo elkarte horietatik sortutako taldeek, baldin-eta uztailaren 21eko Jabetza Horizontalari buruzko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz formalki hala eraturakoak eta, beraz, Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritako funtzionamendu arauetara egokitzen badira.

3. Oinarri Arautzaileak

Surbisako Administrazio Kontseiluak 2025eko martxoaren 18ko bilkuran onartutakoak dira, eta 2025eko apirilaren 2ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Surbisaren webgunean argitaratutakoak.

4. Aurrekontu kreditua

Deialdi honen guztizko zenbatekoa 35.000,00 eurokoa da, eta 2026 aurrekontuaren kargurakoa da.

5. Zenbatekoak

Jaso beharreko zenbatekoa dirulaguntza honi dagozkion oinarri arautzaileen 6.2 artikuluan zehazten diren portzentaje eta gehieneko zenbatekoen baliokidea da.

6. Aurkezteko lekua**6.1. Laguntzen eskaera aurkeztu aurreko jarduketak**

Laguntzak formalki eskatu aurretik, eta aurkeztutako dokumentazioa Oinarri arautzaileetara modu egokian doituta aurkeztu dadin, Uretamendiko Opengelarekin kontaktuan jarri behar da. Opengelak adieraziko du nola eskatu behar diren eskaintza teknikoak, ondoriozko proiektuak dirulaguntzak lortzeko beharrezko xehatze eta betekizun guztiak jaso ditzan.

Aholkularitza eta laguntza eskaera oro uretamendiog@gmail.com posta elektronikoren bidez edo 628.900.181 telefonora deituta bideratu daiteke.



6.2. *Eskariak aurkezteko lekua eta modua*

Deialdi honetarako dirulaguntza eskaerak Uretamendi auzoko 36.ean kokatuta da goen Opengela-Uretamendi bulegoan (Udaltegia, antzinako eskolak) aurkeztuko dira.

Opengela-Uretamendi bulegoarekin kontaktua egiteko moduak hauek dira:

- Posta elektronikoa: uretamendiog@gmail.com
- Telefonoa: 628.900.181.

Dokumentazioa posta elektronikoz aurkezten bada, hau nahitaez «.pdf» edo «jpg» formatuan erantsi beharko da. Beste formatu batean aurkeztutako edozein dokumentazio ez aurkeztuztat joko da.

Laguntzen eskaria eginda, Surbisari baimena ematen zaio izaera pertsonaleko datuen tratamenduari ekiteko, dagokion legediarekin bat eginez, eta, tramitazio honetarako behar izanez gero, beste Administrazio Publiko Batzuekin Datuen Bitartekaritza Plataforma edo Udal Administrazioetik beretik beharrezko informazioa lortzeko ere bai.

Eskarian adierazitako posta elektronikoa erabiliko da espedientetik sortutako izapideei buruzko jakinarazpenak egiteko.

7. Eskabideak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunean hasiko da, eta 2026ko martxoaren 30ean amaituko da.

Urteko esleipena amaitu eta/edo aurretik ezarritako epea amaitu ondoren ez dira eskabide berriak onartuko.

7.1. *Erantsi beharreko dokumentazioa*

Uretamendi Opengelaren bulegoetan, Surbisaren bulegoetan eta bere webgunean emango den «Eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena» inprimakiarekin batera, eta Erkidegoaren ordezkariak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztuko da, laguntza horiek arautzen dituzten xedapen komunen 2.1 oinarrian jasotako dokumentazioa aurkeztuta.

8. Jasotako dirulaguntzak justifikatzeko gehienezko epea

2026ko irailaren 30a baino lehen, diruz lagundutako jarduerak egin izana justifikatu beharko da. Horretarako, xedapen komunen seigarren oinarri arautzailean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

9. Emate-prozedura, honen epeak, esku-hartzen duten organoak, baliabideak eta kontuan hartu beharreko gainerako betekizunak

Emate-prozedura, honen epeak, esku-hartzen duten organoak, baliabideak eta kontuan hartu beharreko gainerako betekizunak Oinarri Arautzaileetan jasotakoak dira.

Bilbon, 2026ko otsailaren 26an. — Surbisako Presidentea, Jon Bilbao Urquijo